

## ~Xchanger~

Noizbait gelditu al zara bateriarik gabe, premiazko momenturen batean? edo ez al diozu inoiz zure lagun bati kargagailu bat eskatu, baina ez zegoen entxuferik eskuragarri une horretan? Zer egingo zenuke? Bateria portatil bat eskatu, lekuz aldatu... Baina, kablerik ez badaukazu? Argi dago aukera guzti hauek ez direla hoberenak.

Guk behar hori asetzeko baliabide bat eskeiniko dizuegu: **Xchanger**. Honen bidez, entxufe bidez kargatzeko eraz ahaztu zaitezke, modu guztiz eroso batengatik ordezkatzuz!

Behar izango duzun gauza bakarra, bi gailu besterik ez dira; mugikor bat, tableta, ordenagailua... Gure produktuak aukera berritzaile bat eskaintzen du: bi gailuren artean hori bera ezarriz, energia transferentzia egitea.



Ez kezkatu, oso idea erraza baita. Aparatu honek, bi polo ditu, bata positiboa eta bestea negatiboa. Batetik, energia askatzen da eta besteak aldiz, energia hori jasotzen du.

Hori da zure gailu elektronikoen artean gertatuko dena: energia transferituko da gutxien daukanetik gehien daukanera. Horrek ahalbidetuko du, beti ere bateria duen gailu bat eskura edukiz, haren bateria beste gailu batean eskuratzeko aukera izatea. Edozein izan daiteke, zure amarena, lagunarena edo edonorena.

Bestalde, material biodegradagarriak ahal den neurrian egiteaz arduratu gara, kontuan hartuta aparatu elektronikoak direla gehien kutsatzen duten hondakinak. Produktu honen birziklapena oso sinplea da, karkasa biodegradagarria delako; beraz, barruko osagaiak eta kanpoko imanak garbigunera eraman behar dira botatzekotan.



Diseinuari dagokionean, gailu oso erresistentea da, kolpeen aurkakoa eta denbora luzez irauten duena, erabiltzen ditugun kalitatezko metalei esker. Bestalde, ultrafina eta ultrarina izateko prestatua dago, sentsazio izugarri leunarekin; modu honetan, leku guztietara eramangarria izan daiteke.

Berebiziko garrantzia duen elementua, prezioa da eta 19,99€ eurokoa izango da; hala ere, hiru euroko gehigarri gat ordainduz gero, bost urteko garrantia eskaintzen da.

Gainera, denok dakigu telefono bat aldatzeko arrazoi nagusietako bat bateria dela. Gaur egun oso ohikoa baita hauen narriadura, eta honekin, arazo hori konpontzen saiatu garen froga bat da: *Xchanger*-arekin zure bateria iraunkorragoa izango da. Era berean, *Xchanger* bidezko karga ez da hain arriskutsua, hau da, bateriak ez du hainbesteko goi-tentsiorik jasaten, eta horrek bateriaren bizitza zaintzen laguntzen du, zure gailu berriak zaintzeko modurik hobereana izanda.

